

## 5. ARTILEA

Hau orain garbituta daukat.

### **Baina ilea hartu eta non kontsegitze... zer egiten duzu?**

Lehen garbitua daukat nik hau. Lehen egin behar izaten da ondo lehortu. Ondo lehortu eta gero, arindu baldin bada, ilea ez da hain ona izan.

### **Non lehortzen duzu, Agustin? Non lehortzen duzu, atarian?**

Ez, barnean lehortu nuen, euria tokatu zuen egun hortan eta lehortu nuen barnean. Eta gainera, pasatu zituen lehortzen, hiru egun pasatu zituen.

### **A, bai, e?**

Bai, eta ederki lehortu zen gainera. Eta garbitu ere ongi egin nuen eta ilea... zenbait ile izanez gero, bildotsarena edo...

### **Luze-luzea...**

Bildotsarena edo libre izanez gero, errazagoa izaten da, baina...

### **A, klaro, luzeagoa beti hobea, ezta? Beti hobea.**

Bai, hobea beti. Niri tokatu zait juntu samarra. Baina, honekin egin behar izaten da...

### **Zer zenuen, ardiarena?**

Ardiarena, bai. Eta egin behar izaten da pazientzia pixka bat hartu.

### **Bueno, lasai!**

Nik badaukat, bai, pazientzia!

### **Orduan ya está.**

Pixkaka-pixkaka-pixkaka-pixkaka-pixkaka-pixkaka...

### **Orain egiten ari zarena da harrotu, ez?**

Harrotu, bai, harrotu.

### **Eta garbitu, nola garbitzen da ilea?**

Garbitzen da ilea, aurrena ur askorekin. Nik neukan, gainerakoan ez zegoen urik, baina nik neukan zera, kubo bat, hemen hormigoiarentzat jarritako kubo bat, nik hantxe garbitu nuen. Berrehun litroko, horrako, pertza zahar horietako bat.

### **Eta ez du behar ez xaboirik ez...?**

Ezta ezer ez, ezta ezer ez. Eta han ederki garbitu nuen, eta zabaldu nuen eta ederki lehortu zen. Eta hori...

**Eta orain harrotu.**

Orain harrotu.

Gero, egin behar izaten da hau. Hau dago harrotua, hau dago harrotua.

**Guata bezala gelditu behar da, ez? Gutxi gorabehera?**

Orain, haria egiteko, haria egiteko hola, hartu poliki-poliki, behera hartu poliki-poliki, eta egin behar izaten da hola, behe neurritxo batean baina, hola, baina alderdi honetara, ni hola hartzera ohitua, orain egin behar izaten da hola jarri. Pazientziarekin, e?

**Bai, bai. Erabat.**

Guk... guk baino gehiago izaten zuten denbora batean, zuek bezalako neskek izaten zuten pazientzia denbora batean. Haiek egiten zituzten hauek. Hola.

**Ari zara nolabait ere biltzen, ez?**

Zerbait... orain jartzen, bai.

**Eta eskuan...**

Bueno, gaur jarri dut orain, eta orain, hau da nik hor jarri dudana. Hau. Orain biltzen da hau hola, hemen.

**A, hola gelditzen da. Baina, ea...**

Hola biltzen da orain.

**Baina oso motza baldin baduzu zera? Haria?**

Ikaragarri luzea, asko harrotuz gero luzea izaten da.

**A, bai? Eta igual bata bestearekin itsatsi edo pegatu, ez? Edo...?**

Bai, hola, hola, hola. Holaxe egiten da, bai.

**Bale.**

Holaxe egiten da, bai.

**Artista, artista, e? Agustin?**

Eta, egiten zituen lehenago... "goattik" (lokarriak) deitzen zitzaien, guata... egiten zen lehenago.

**A, bai, lokarriak.**

Lokarriak, hola egiten zituen.

**Beltzarekin.**

Beltzarekin, eta, baina, gainera, ardienarekin ez, baina behorren isatseko ilearekin eta...

**A, baita ere.**

**Orain bildu, ez?**

Bai.

**Luze samarra egiten dena bildu, ez?**

Bildu.